

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

5199

55/2011 FORU DEKRETUA, irailaren 13ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren katastro balorazioaren arauak onartzen dira.

Abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren 7/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoaren zerga sistemari ondasunen hirugarren kategoria bat gehitu zitzaion, ordura arte Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan existitzen ez zena: ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kategoria.

Ondasunen kategoria berri hori gehitu aurretik, higiezin bat baloratzeko ezinezkoa bazen —higiezin hori udalerrriaren lurralde eremuaz gaindikoa zelako edo ezaugarri bereziak zituelako—, balio txostenean idazten ziren, batetik, zein zen balorazioa egiteko jarraitu beharreko prozedura zehatza, eta, bestetik, prozedura hori zein higiezinari aplikatu behar zitzaion. Hori guztia, urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan jasotako arau teknikoetan ezarritako prozedura orokorrarekin bat etorritik.

Hiri ondasun higiezinetatik kanpo geratzen zen ezaugarri bereziko ondasunen kategoria berri hori gehitzean, beharrezkoa izan zen horien katastro balioa zehazteko lege irizpideak arautegi batean biltzea.

Foru dekretu honek, funtsezkoak diren berezitasunak ezartzeaz gain, aparteko balorazioa egin behar dela agintzen du, dagokion balio txostenak aurreikusitako balorazio metodoari jarraituz. Hala ere, ahal den guztietan, landa eta hiri ondasun higiezinak baloratzeko arau berberak aplikatuko direla xedatzen du.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru dekretu honen xedea da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 3. artikuluko 4. idatz zatian, definitutako ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko aplikatu behar diren arauak onartzea.

2. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak baloratzeko xede duten balio txostenetan jaso egin behar da zein izan diren horretarako erabiltako irizpide espezifikokoak.

3. Aurreko 2. idatz zatian aipatutakoari kalterik egin gabe, Arabako Lurralde Historikoaren barruan partzialki finkatutako higiezin baten edo higiezin multzo baten beti-bateko balorazioa egite aldera, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak aukera izango du, behar bezala arrazoitu ondoren, beste administrazio publiko batek higiezinari aitortutako balioaren erreferentziako balorazioak, irizpideak edo koefiziente espezifikokoak erabiltzeko.

2. artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro balioa.

1. Merkatuko balioa erreferentziatzat hartuta kalkulatu da katastro balioa, zeina ez den sekula hura baino handiagoa izango. Kalkulu hori foru dekretu honetan adierazitakoaren arabera egingo da.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

5199

DECRETO FORAL 55/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, que aprueba las Normas de valoración catastral de los bienes inmuebles de características especiales.

El Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 7/2006, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, incorporo al sistema tributario del Territorio Histórico de Álava una tercera categoría de bienes que no existía hasta el momento en la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, los bienes inmuebles de características especiales.

Anteriormente a la incorporación de esta nueva categoría de bienes, aquellos inmuebles que excedían del ámbito territorial de un municipio o cuyas características especiales impedían su valoración, de acuerdo con el procedimiento establecido con carácter general en las normas técnicas incluidas en el Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero, se individualizaba en la Ponencia de Valores el procedimiento específico para su valoración, concretándose los inmuebles a los que dicho procedimiento era de aplicación.

La incorporación de estos bienes de características especiales como una nueva categoría de bienes distinta de los bienes inmuebles de naturaleza urbana, hace necesario que, reglamentariamente, se establezcan los criterios legales que permitan determinar su valor catastral.

El presente Decreto Foral establece aquellas singularidades que resultan imprescindibles, indicando que se realizará una valoración singularizada, conforme al método valorativo que prevea la correspondiente ponencia de valores. No obstante y allí donde sea posible, dispone la aplicación de idénticas reglas de valoración que las establecidas para los inmuebles rústicos y urbanos.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

1. Es objeto del presente Decreto Foral la aprobación de las normas aplicables para la determinación del valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales definidos en el apartado 4 del artículo 3 de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

2. Las Ponencias de Valores, que tengan por objeto la valoración de los bienes inmuebles de características especiales, recogerán los criterios específicos utilizados para su valoración.

3. Sin perjuicio de lo señalado en el apartado 2 anterior y con objeto de realizar una valoración uniforme de un inmueble concreto o de un determinado conjunto inmobiliario parcialmente asentado dentro del Territorio Histórico de Álava, el Servicio de Tributos Locales y Catastro podrá utilizar, motivadamente, valoraciones, criterios o coeficientes específicos de referenciación al valor otorgado al inmueble por otra Administración Pública.

Artículo 2. Valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales.

1. Para el cálculo del valor catastral se tomará como referencia el valor de mercado, sin que en ningún caso pueda exceder de éste. Dicho cálculo se realizará de acuerdo con lo señalado en el presente Decreto Foral.

2. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro balioa honela kalkulatu da: lurzoruaren balioa gehi eraikuntzen balioa. Hori guztia, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera. Hala ere, dagokion merkatuaren erreferentziarako koefizientea aplikatu ahalko da.

3. artikulua. Ezaugarri bereziko higiezinaren lurzoruaren balorazioa.

Ezaugarri bereziko higiezinak okupatzen duen lurzoruaren katastro balioa dagokion balio txostenean ezarriko da. Bertan jasotako irizpideen arabera, hainbat area edo sektore finkatu ahalko dira.

4. artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinetakoa erai-kuntzen balorazioa.

1. Katastro balorazioa egiteko, ezaugarri bereziko higiezinaren eraikuntzak bi motatan banatzen dira: ohiko eraikuntzak eta eraikuntza bereziak.

2. Honako hauek joko dira ohiko eraikuntzatzat: urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan —hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa onartu zituen— adierazitako eraikuntza motaren batean sar daitezkeen eraikuntzak.

3. Ohiko eraikuntzen balorazioa urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan ezarritako arauei jarraituz egingo da. Foru dekretu horren bidez, onartu egin ziren hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa.

4. Honako hauek joko dira eraikuntza berezizat: urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan —hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa onartu zituen— adierazitako eraikuntza motaren batean sartu ezin diren eraikuntzak.

5. Aurreko 4. idatz zatian definitutako eraikuntzak baloratzeko xedez, aparteko balorazioa egingo da, dagokion balio txostenak aurreikusitako balorazio metodoari jarraituz.

5. artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun motak.

1. Eraikuntza motak honela sailkatuko dira:

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA EDO KOKALEKUA	KATEGORIA 1., 2., 3., 4. eta 5.
10 Ezaugarri bereziko eta ondasun higiezinak	105 Autobidea, errepideak eta ordainpeko tunelak	1051 Autobideak
		1052 Errepideak
		1053 Ordainpeko tunelak
106 Presak, ur-jauziak eta urtegiak	106 Presak, ur-jauziak eta urtegiak	1061 Presak
		1062 Ur-jauziak
		1063 Urtegiak
107 Aireportuak	1071 Aireportuak	
108 Energia elektrikoaren ekoizpena, gasa, petrolio fintzea, zentral nuklearrak.	108 Energia elektrikoaren ekoizpena, gasa, petrolio fintzea, zentral nuklearrak.	1081 Elektrikoak (termikoak, eolikoak, fotovoltaikoak, eta abar)
		1082 Gasa
		1083 Petrolio findegia
		1084 Zentral nuklearrak
109 Beste batzuk	1091 Beste batzuk	

2. Oraingo 10. erabilera dela eta, aurreko 1. idatz zatian ageri den taula hori urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuaren bidez onartu zen eranskinari (“hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa”) txertatuko zaio. Eranskin horrek eraikuntzen balioaren koefiziente taula jaso zuen.

6. artikulua. Balio txostenak.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balio txostenak egiteko, foru dekretu honetan edo landa eta hiri ondasun higiezinak baloratzeko xedapen orokor teknikoetan aurreikuspenik egon ezean, balo-

2. El valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales se obtendrá mediante la suma del valor del suelo y del valor de las construcciones conforme a lo establecido en este Decreto Foral, sin perjuicio de la aplicación del coeficiente de referencia al mercado correspondiente.

Artículo 3. Valoración del suelo de los inmuebles de características especiales.

El valor catastral del suelo ocupado por el inmueble de características especiales se establecerá en la Ponencia de Valores correspondiente, en la que podrán diferenciarse áreas o sectores según los criterios que se especifiquen en ella.

Artículo 4. Valoración de las construcciones en los bienes inmuebles de características especiales.

1. Las construcciones de los inmuebles de características especiales se clasifican, a efectos de su valoración catastral, en construcciones convencionales y singulares.

2. Se entiende por construcción convencional aquella cuyas características permitan su identificación con alguna de las tipologías constructivas definidas en el Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro-Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

3. La valoración de las construcciones convencionales se realizará atendiendo a las normas establecidas en el Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro-Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

4. Se entiende por construcción singular aquella cuyas características no permitan su identificación con ninguna de las tipologías constructivas definidas en el Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro-Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

5. Para valorar las construcciones definidas en el apartado 4 anterior, se realizará una valoración singularizada, conforme al método valorativo que prevea la correspondiente Ponencia de Valores.

Artículo 5. Clases de bienes de características especiales.

1. La tipificación de las construcciones se efectuará de acuerdo con la siguiente clasificación:

USO	CLASE	MODALIDAD O DESTINO	CATEGORÍA 1ª, 2ª, 3ª, 4ª y 5ª
10 Bienes inmuebles de características especiales	105 Autopista, carreteras y túneles de peaje	1051 Autopistas
		1052 Carreteras
		1053 Túneles de peaje
	106 Presas, saltos de agua y embalses	1061 Presas
		1062 Saltos de agua
		1063 Embalses
107 Aeropuertos	1071 Aeropuertos	
108 Producción energía eléctrica, gas, refinado de petróleo y centrales nucleares.	108 Producción energía eléctrica, gas, refinado de petróleo y centrales nucleares.	1081 Eléctricas (térmicas, eólicas, fotovoltaicas, etc.)
		1082 Gas
		1083 Refinerías de petróleo
		1084 Centrales Nucleares.
109 Otros	1091 Otros	

2. El cuadro a que hace referencia el apartado 1 anterior se incorporará, tras el actual uso 10, al cuadro de coeficientes del valor de las construcciones que figura en el Anexo titulado “Normas Técnicas de valoración y Cuadro Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana”, aprobado por Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero.

Artículo 6. Ponencias de Valoración.

En la confección de las Ponencias de Valores, en cuanto se refieran a bienes inmuebles de características especiales, en defecto de previsiones recogidas en el presente Decreto Foral, así como en

ratzeko parametro tekniko ezberdin edo espezifikoetat erabili ahalko dira, behar bezala arazoitu ondoren, honako hauek: balioa zenbateteko ezarritako edozein arau, metodo edo prozeduratan adierazitako parametro teknikoak, Foru Aldundiak tributuoak aplikatzeko onartutakoak badira edo sektoreko administrazio legerian jasota badaude.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuaren bidez onartu zen eranskinean ("hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzorua eta erai-kuntzen balioen taula markoa") jasotako eraikuntzen balioaren koefiziente taulan, 10. erabilerrari dagokionean (eraikin bereziak), mota eta modalitate edo kokaleku hauek ezabatuko dira:

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA EDO KOKALEKUA	KATEGORIA 1., 2., 3., 4. eta 5.
10 Eraikin bereziak	105 Autobideak	1051 Autobideak
	106 Urtegiak, presak...	1061 Urtegiak, presak, eta abar.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 13a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

5193

482/2011 ERABAKIA, irailaren 13ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Iciar Ochoa Sáinz de Aja andrea behin-behineko langileek bete beharreko aholkulari teknikari lanposturako izendatzen da.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Arabako Foru Aldundiko Goi Karguen eta Behin-behineko Langileen Erregimena arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak 2. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, Diputatuen Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo eskumena duen diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko aholkulari berezi lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Diputatuen Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT

Lehenengo.- Iciar Ochoa Sainz de Aja andrea izendatzea behin-behineko aholkulari bereziak betetzeko den aholkulari teknikoaren lanposturako (kode zenbakia: 1122.003).

Bigarren.- Erabaki honek 2011ko irailaren 14tik aurrera izango du indarra.

Hirugarren.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 13an.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.

las disposiciones generales técnicas de valoración relativas a los bienes de naturaleza rústica y urbana, se podrán adoptar motivadamente como parámetros técnicos de valoración distintos o específicos, cualquiera de los establecidos tanto en normas, métodos o procedimientos de estimación del valor aprobados a los efectos de aplicación de los tributos por la Diputación Foral o recogidos en la legislación administrativa sectorial.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Del Cuadro de coeficientes del valor de las construcciones que figura en el Anexo titulado "Normas Técnicas de valoración y Cuadro Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana", aprobado por Decreto Foral 2/1994, de 18 de enero y dentro del uso 10, Edificios singulares, se eliminan las siguientes clases y modalidades o destinos:

USO	CLASE	MODALIDAD O DESTINO	CATEGORÍA 1º, 2º, 3º, 4º y 5º
10 Edificios singulares	105 Autopistas	1051 Autopistas
	106 Embalses, presas...	1061 Embalses, presas, etc.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 13 de septiembre de 2011.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JOSÉ IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Acuerdos del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DEL DIPUTADO GENERAL

5193

ACUERDO 482/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, que nombra a doña Iciar Ochoa Sáinz de Aja para desempeñar el puesto de trabajo, reservado a personal eventual, de Técnica Asesora.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.11 de la Norma Foral 52/92, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, y en el artículo 2 y siguientes de la Norma Foral 4/2000, de 21 de febrero, reguladora del régimen de altos cargos y personal eventual de la Diputación, corresponde al Consejo de Diputados, a propuesta del Diputado General o Diputado competente, el nombramiento de las personas que van a desempeñar funciones de asesoramiento especial, que ocuparán con carácter no permanente los puestos que, con dicha denominación, figuren en la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, en ejercicio de las facultades atribuidas por el artículo 8.11 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy.

ACUERDO

Primero.- Nombrar a Dña. Iciar Ochoa Sáinz de Aja para desempeñar el puesto de trabajo reservado al personal eventual de Técnico/a Asesor/a, código 1122.003.

Segundo.- El presente Acuerdo producirá efectos desde el día 14 de septiembre de 2011.

Tercero.- Publicar el presente Acuerdo en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de septiembre de 2011.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.